PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

ZERBITZUEN KONTRATUA

Prozedura irekia

Helburua: proiektuak ebaluatzen laguntzeko zerbitzuak ematea Industria Sustapen eta Digitalizazio Arloko laguntza-programen barruan

Espediente-zk.: 2026031

1. SARRERA ETA TESTUINGURUA

Euskadi 2030 – Industria Planaren esparruan artikulatzen dira lehentasunak, ardatz hauen arabera: «Industria gehiago», «Industria hobea» eta «Isuri gutxiago», eta administrazioa sinplifikatzen da. Esparruak hauek guztiak konbinatzen ditu: enpresen hazkuntza eta errotzea, balio-kateak indartzea, berrikuntza teknologikoa eta industria-jarduera jasangarriagoranzko trantsizioa.

Lehentasun horien bidez ezartzen dira, Euskadiren esparruan, Europako industria-politikaren helburu nagusiak: lehiakortasun eta autonomia estrategikoa indartzea, eraldaketa digitala azeleratzea, eta deskarbonizazioa industria-garapenarekin lotzea. Euskadin, eraldaketa digitala hazkuntza, ekoizpen eta lurralde- eta gizarte-kohesioko palankatzat hartzen da, berrikuntza-arraila ixteko eta oinarri teknologiko eta industrial sendoagoa finkatzeko Europako lehentasunarekin bat.0}

Euskadi 2030 Eraldaketa Digitalerako Estrategiak eta Euskadi 2030 – Industria Planak orientazio hori zehazten dute adimen artifiziala eta zibersegurtasuna sustatzearen, talentua garatu eta erakartzearen, eta azpiegitura fisiko eta digital aurreratuak sustatzearen bidez. Adimen artifiziala enpresen produktibitatea eta maila teknologikoa handitzeko gaitasun gisa planteatzen da, eta zibersegurtasunak erresilientzia indartu eta produkzio-jarduera babesten du gero eta interkonektatuago dagoen ingurune batean.

Apustu horrek bat egiten du Europar Batasunaren zibersegurtasunari eta adimen artifizialari buruzko ikuspegiarekin. Horren bidez sustatzen da teknologia horien erabilera segurua eta arduratsua, erresilientzia indartzea, eta gorabeheren aurreko prebentziora, detekziora eta erantzunera aplikatutako Europako gaitasunak zabaltzea. Horiek horrela, Euskadiren industria-digitalizazioko politika lerrokatu egiten da berrikuntza eta konfiantza digitaleko espazio europar bat eraikitzearekin, non aurrerapen teknologikoak eta segurtasunak elkarrekin bilakatuko diren.

Makinen eta produkzio-ekipamenduaren modernizazioak osatzen du orientazio hori, eraldaketa digitala ingurune industrialera eramaten baitu teknologia hauen bidez: fabrikazio aurreratua, automatizazioa, adimen artifiziala, sistema ziberfisikoak, eta industria adimendunaren berezko beste soluzio batzuk. Ildo horrek laguntzen du enpresen produktibitatea, efizientzia eta malgutasuna hobetzen, eta konektatu egiten du inbertsio teknologikoaren eta balio erantsi handiagoa duten industria-jardueren garapenaren Europaren aldetiko sustapenarekin.

Europar Batasunaren lehiakortasunaren iparrorratzak hiru lehentasun osagarri identifikatzen ditu: berrikuntza-arraila ixtea, deskarbonizazioa lehiakortasunarekin konektatzea, eta gehiegizko mendekotasunak murriztea. Bere aldetik, Industria Garbiaren Itunak emisio txikiko prozesuak eta teknologiak sustatzen ditu Europako produkzio-oinarria indartzeko aukera gisa. Euskadi 2030 – Industria Plana agendan integratzen da berrikuntza, digitalizazioa, jasangarritasuna eta industria-autonomia konbinatuta, eta Europako orientazioak Euskadiko produkzio-ehunaren gaitasun eta beharretara egokituta.

Europako esparruarekin koherentzia mantenduta, Euskadik lehentasuna ematen dio industriaren arloko ETEen tamaina handitzeari, enpresa eragileak errotzeari, balio-kate estrategikoak sendotzeari, nazioartekotzeari, eta maila teknologikoa eta berritzailea areagotzeari. Jarduera, produktu, zerbitzu eta merkatu berrietarako dibertsifikazioak, produkzio-gaitasunak berritzearekin batera, ahalbidetu egiten du egungo industriaren eraldaketa konbinatzea negozio-aukera berrien garapenarekin eta kanpoko ahultasunak murriztearekin.

Horiek horrela, produkzio-inbertsioak, digitalizazioak, dibertsifikazioak eta deskarbonizazioak Euskadik eta Europar Batasunak partekatzen dituzten erronkekin integratutako erantzuna osatzen dute. Euskadiko politikak Europako berrindustrializazioa sustatzen du fabrikazio aurreratuko, energiako eta soluzio digitalen indarguneen bidez, eta Europako orientazioek Euskadin industriaren lehiakortasuna, erresilientzia eta jasangarritasuna indartzeko esparrua osatzen dute.

SPRI- Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak (aurrerantzean, SPRI) Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sareari zuzendutako hainbat laguntza-programa kudeatzeko eskumena du.

Laguntza-programa horiek kudeatzeko, SPRIk Espedienteak Kudeatzeko Sistema bat du. Sistema hori hainbat tresnek osatzen dute, eta horien bidez, SPRIren erantzukizunpeko laguntza-lineetako espedienteak modu automatizatuan izapidetzen dira.

2. KONTRATAZIOAREN XEDEA

Kontratazioaren xedea SPRIri laguntza ematea da, modu osagarrian, Industria Sustapen eta Digitalizazio Arloko programetara aurkeztutako proiektuen ebaluazio tekniko eta ekonomikoan.

Zehazki, arloak laguntza behar du esparru hauetan:

- 1. lotea – Teknologia Digitalak: Adimen Artifiziala, Industria Zibersegurtasuna eta Renove Smart Industry programen barruan aurkeztutako proiektuak teknikoki eta ekonomikoki ebaluatzen laguntzea, bai eta etorkizunean egiten diren deialdietan ere; programa berdinak izan daitezke edo teknologia digitalekin edo aurrekoekiko antzeko gaiekin lotutako programak, abian jar daitezkeenak Euskadi 2030 – Industria Planarekin eta/edo Euskadi 2030 Eraldaketa Digitalerako Estrategiarekin lotuta, baldin eta zerbitzuaren izaera edo egin beharreko lanak aldatzen ez badira.

- 2. lotea – Industria Sustapena: Dibertsifika programan aurkeztutako proiektuak teknikoki eta ekonomikoki ebaluatzen laguntzea, bai eta etorkizunean egiten diren deialdietan ere; programa berdina izan daiteke edo aurrekoekiko antzeko gaiekin lotutako programak, abian jar daitezkeenak Euskadi 2030 – Industria Planarekin lotuta, baldin eta zerbitzuaren izaera edo egin beharreko lanak aldatzen ez badira.

Kontratuaren xede diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egingo dira.

Edonola ere, SPRIk beretzat gordetzen ditu gaitasunaren aplikazioa eta administrazio-prozeduraren izapidetzea, jakinarazpenak egitea, kontrol efektiboa eta dagozkion erabakiak hartzea.

3. ZERBITZUEN IRISMENA

Kontratuaren adjudikaziodun suertatzen den enpresak SPRIri eman beharko dizkio proiektuen ebaluazio teknikoan eta ekonomikoan laguntzeko zerbitzuak laguntza-programa hauetan:

1. lotea – Teknologia digitalak:

- Adimen Artifiziala
- Zibersegurtasun Industriala
- Renove Smart Industry

Bai eta bai eta programa horien edo teknologia digitalen edo aurrekoen antzeko gaia duten beste programa batzuen etorkizuneko deialdietan ere, Euskadi 2030 – Industria Planarekin eta/edo Euskadi 2030 Eraldaketa Digitalerako Estrategiarekin lotuta, zerbitzuaren izaera edo egin beharreko lanak aldatzen ez diren bitartean.

2. lotea – Industria Sustapena:

- Dibertsifika

Bai eta programa horren edo aurrekoen antzeko gaia duten beste programa batzuen etorkizuneko deialdietan ere, Euskadi 2030 – Industria Planarekin lotuta, zerbitzuaren izaera edo egin beharreko lanak aldatzen ez diren bitartean.

4. GARATU BEHARREKO JARDUERAK DESKRIBATZEA

1. lotea – Teknologia digitalak:

1. loteko laguntza-programei dagokionez, enpresa adjudikaziodunak egiaztapen tekniko hauetan lagundu behar du esleitutako espedienteetan:

- Enpresaren eta haren jardueraren ezaugarriak. Mikro, txiki, ertain edo enpresa handiaren sailkapena. Gauzatzen duen jarduera eta JESN eta EJZ sailkapena.
- Oinarri arautzaileak betetzeko beharrezkoa den laguntza-/likidazio-eskaeraren dokumentazioa berrikustea.
- Minimis klausularen menpe dauden laguntzen analisia eta proiektu bererako jasotako beste laguntza batzuena.
- Aurkeztutako proiektua bera eta dagokion laguntza-programaren oinarri arautzaileetara egokitzen dela ebaluatzea.
- Aurkeztutako eta/edo gauzatutako aurrekontua ebaluatzea, bai eta dagokion laguntza-programaren oinarri arautzaileetako gastu-kontzeptuetara egokitzen dela ebaluatzea ere. Zuzena den adierazi edo beharrezkoak diren aldaketak egin behar dira.
- Proiektuaren egikaritzea berrikustea likidazio-fasean.
- Egiaztapen guztiak egin ondoren, ebaluazio-txostenaren zirriborro bat prestatzea.

2. lotea – Industria Sustapena:

2. loteko laguntza-programei dagokionez, enpresa adjudikaziodunak egiaztapen tekniko hauetan lagundu behar du esleitutako espedienteetan:

- Enpresa eskatzailearen oinarrizko ezaugarriak biltzea
  - Enpresaren datu nagusiak bildu eta berrikustea: jatorria eta ibilbidea, jarduera-zentroen kokapena, enplegua, fakturazioa eta garatzen duen jarduera.
  - Egungo jardueraren deskribapen laburra eta sailkapena 2030 Industria Planean definitutako sektore-esparruen arabera (HAZI, IRABAZI, JAUZI edo dagozkion beste batzuk).

- JESN edo EJZ sailkapena enpresak berak eskabide telematikoan deklaratutako informaziotik hartuko da, ebaluazioan detektatu daitezkeen inkoherentziak adieraztea ezertan eragotzi gabe.

- Proiektuaren memoria eta dokumentazioa berrikustea
  - Enpresak aurkeztutako memoria xehatua aztertzea, eta emandako informazioaren koherentzia eta nahikotasuna egiaztatzea.
  - Hauek berrikusiko dira, gutxienez: aurreikusitako inbertsioak, industria-plana, plan ekonomiko-finantzarioa eta negozio-plana, proiektuari lotutako lan-plana, eta laguntza behar duen inbertsioaren deskribapena eta irismena.
  - Proiektuaren ebaluazioan eragina izan dezaketen gabeziak, ahultasunak edo behar bezala justifikatu gabeko alderdiak identifikatzea.
  - Gabezia horiek berariaz identifikatu eta deskribatu beharko dira ebaluazio-txostenean.
- Programaren eskakizunak betetzen direla egiaztatzea
  - Egiaztatzea, eskuragarri dagoen dokumentaziotik abiatuta, bai enpresa eskatzaileak bai aurkeztutako proiektuak bete egiten dituztela Dibertsifika programaren oinarri arautzaileetan eta deialdian ezarritako eskakizunak eta baldintzak.
  - Ebaluazio-txostenean identifikatzea argibideak edo dokumentazio osagarria eskatu dezakeen edozein ez-betetze, baldintzatzaile, zalantza edo alderdi.
  - Modu argian bereiztea enpresaren hautagarritasuna, proiektuaren hautagarritasuna eta, hala badagokio, planteatutako inbertsioen hautagarritasuna.
- Eskabideen ebaluazioa eta puntuazioa
  - Eskabide bakoitza ebaluatzea Dibertsifika programaren deialdian ezarritako sei balorazio-irizpideen arabera.
  - Irizpide bakoitzaren puntuazioaren zirriborroa, modu homogeneoan aplikatuta ezarritako balorazio-irizpide eta -eskalak.
  - Justifikazio indibidualizatu, zehatz eta behar bezala arrazoituaren zirriborro bat prestatzea puntuazio bakoitzerako, soilik oinarrituta espedienteko informazioan eta dokumentazioan.
  - Beharrezkoa denean, eginiko balorazioa azaltzen duten proiektuaren indarguneak, ahultasunak eta elementu bereizgarri nagusiak identifikatzea.
  - Aztertutako informazioaren, emandako puntuazioen eta eginiko justifikazioen arteko koherentzia egiaztatzea.
  - Izan daitezkeen akats, omisio edo ahultasunak zuzentzea.

Bi loteetako ebaluazio-txostenen zirriborroek kalitate-irizpide hauek bete beharko dituzte:

- Argitasuna. Edukiak argi azalduko dira, helarazi nahi denari buruz zalantzak sor ditzakeen lausotasunik edo zehaztugabetasunik gabe.
- Garrantzia. Egiaztatutako gertakariak eta lortutako ondorioak ondoen ezagutzea ahalbidetzen duten elementuak jasoko ditu txostenak.
- Zehaztasuna. Ebaluazio-txostenaren edukia zehazki eta labur garatuko da, eta ez da egiaztapenak, ondorioak eta gomendioak ulertzeko erabakigarria ez den xehetasunik sartuko.
- Koherentzia. Ebaluazio-txostenean jasotako iruzkinek ibilbide logikoa izango dute gaietan, eta iruzkinei esker lortutako egiaztapen, ondorio eta gomendioak ulertu ahal izango dira, orokorretik hasi eta zehaztasunetara. Gainera, ebaluazio-txostenaren edukian jasotako beharrezko baliabideei buruzko proposamenekin bat etorriko dira.
- Zorroztasuna. Edukiak zehazki azalduko dira, egiaztapenen baliozkotasuna bereizteko beharrezko elementuak jasoko dituzte eta lortutako ondorioak nahikoa justifikatuko dira.
- Linguistikoak. Zerbitzua Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) bermatu beharko da.

Adierazitako kalitate-irizpideak kontratua betetzearen funtsezko baldintzak dira. Aurreko paragrafoan deskribatutako kalitate-irizpideetako edozein ez betetzeak zigor bat ezartzea ekarri ahal izango du, lagundu behar den proiektuaren % 30era artekoa.

4.1 ZERBITZUA DIMENTSIONATZEA

Adjudikaziodunak nahitaez ebaluatu beharko ditu esleitzen zaizkion proiektu guztiak eta, hala badagokio, hori egin beharko du SPRIk ezarritako epean, bai eta SPRIk emandako aplikazio informatikoak erabili ere, SPRIk baimentzen dituen horietarako sarbide puntualen bidez. Erabilera horrek ez du ekarriko, inola ere, SPRIren eta prestazioa ematen duten pertsona zehatzen arteko inolako mendekotasunik. Estimazio hauek egin dira estimazio-xedeetarako soilik —eta, beraz, ez dira lotesleak— kontratuaren betearazpenaren lehen urterako (ikusi AKPAren 3.1 eta 1.2.3 klausulak horri dagokionez):

1. lotea – Teknologia digitalak:

- 1 690 proiektu (laguntza-eskaerak eta/edo likidazio-eskaerak)

2. lotea – Industria Sustapena:

- 350 proiektu (laguntza-eskaerak eta/edo likidazio-eskaerak)

5. LANTALDEA ETA PROFILAK

Hauek dira kontratua egikaritzeko adskribatutako langileei eskatu beharreko baldintzak eta gaitasunak:

Lantaldearen gutxieneko dimentsionamendua modu bereizian ezartzen da lote bakoitzerako, ebaluazioaren xede diren espedienteen balio zenbatetsiaren arabera.

- 1. lotea: lantaldea gutxienez bi (2) kidek osatuko dute.
- 2. lotea: lantaldea gutxienez kide batek (1) osatuko du.

Enpresa lizitatzaileren bat bi loteetara aurkezten bada, lantaldeko kideak ezberdinak izango dira lote bakoitzerako.

Izan ere, lote bakoitzean ebaluatu behar den espedienteen bolumen zenbatetsia ez da berdina, eta bi kasuetan baliabideen zuzkidura egokia eta aurreikusitako lan-kargarekiko proportziozkoa bermatu behar da.

Gutxieneko horiek eragotzi gabe, entitate lizitatzaileek pertsona osagarriak adskribatu ahal izango dituzte kontratua betetzeko; eta alderdi hori, hala badagokio, positiboki baloratuko da agirian ezarritako irizpideen arabera.

- Lantaldera adskribatutako pertsona batek, ebaluazio-aholkulari aditu espezializatu gisa jardungo duenak, onartuko ditu, horrez gain, proiektu-arduradunaren eta SPRIko Industria Sustapen eta Digitalizazio Arloak izendatutako pertsonarekiko bitartekariaren eginkizunak. 2. lotearen kasuan, ekipoa pertsona bakar batek osatzen duenean, pertsona horrek hartuko ditu bere gain ebaluazio-aholkulari aditu espezializatuaren eta proiektu-arduradunaren eta SPRIko bitartekariaren eginkizunak. Eginkizun horiek gauzatzen dituen pertsonak nahikoa ezagutza eta

eskarmentu izan beharko du horrelako lanetan, eta lanak koordinatzeko eta preskripzio teknikoen agiriaren 3. apartatuan ezarritako kalitate-eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko arduraduna izango da. Era berean, egikaritzean ebaluazio-aholkulari bat baino gehiago dagoenean, hura izango da eginiko ebaluazio-txostenen zirriborroak berrikusi eta homogeneizatzeko arduraduna.

3. apartatuan deskribatutako lanak gauzatzeko, ebaluazio-aholkulari aditu espezializatuaren eginkizunak gauzatzen dituzten pertsona guztiek, hala badagokio proiektu-arduradunaren eginkizunak ere bere gain hartzen dituenak barne hartuta, hiru (3) urteko gutxieneko esperientzia egiaztatu beharko dute espedienteen ebaluazioaren arloan, bai eta adskribatu diren loteari dagozkion gaiekin lotutako proiektuetako esperientzia ere. Gai horietako esperientziaren egokitasuna baloratzeko xedeetarako, erreferentzia gisa hartu ahal izango dira, modu orientatiboan, Adimen Artifiziala 2026, Zibersegurtasun Industriala 2026, Renove Smart Industry 2026 eta Dibertsifika 2026 laguntza-programetako oinarri arautzaileetan jasotako gaiak.

- Era berean, adjudikaziodunak kontratuaren betearazpenerako adskribatutako pertsona guztien inpartzialtasuna eta independentzia bermatu beharko du. Ondorioz, pertsona horietako batek ere ezingo du esku hartu proiektu baten ebaluazioan horren garapen-prozesuan parte hartu badu edo horrekin harremanik badu, zuzenean edo zeharka, inpartzialtasuna edo independentzia jokoan jartzen direnean. Adjudikaziodunak interes-gatazka posible baten berri duenean, SPRIrik jakinarazi beharko dio dagozkion zerbitzuak eskatu eta bost (5) egun balioduneko gehieneko epean. Betebehar hori berariaz funtsezkotzat hartzen da.

6. GAINBEGIRATZEA ETA JARRAIPEN-MEKANISMOAK

Kontratu bakoitzerako esleitutako pertsonen arduraldia proiektuaren eskaerara egokituko da une bakoitzean SPRIren aldetik, eta inola ere ez da gainditukо kontratuaren balio zenbatetsia.

Kontratu-arduradunak zuzenean ikuskatuko ditu proiektuko taldeak egindako lanak. Hortaz, bidezkotzat jotzen dituen azalpen eta informazio guztia eskatu ahal izango du kontratatutako lanak behar bezala egiten direla ziurtatzeko.